


Koldo Zuazo

# Nola uztartu Sakanako hizkerak eta euskara batua



Sakana, Euskal Herriko mapan •



## Sakanan euskara erabiltzeko zenbait ohar

Ziordia eta Irurtzun bitarteko eremua sartzen da Sakanako eskualdean. Batasun bat osatzen du bizimoduko arlorik gehienetan eta, edozein hizkuntza egitasmo bideratzeko orduan, eskualde hori nahitaez osotasun horretan ikustea komeni da.

Euskararen egoerari begiratzen badiogu, hala ere, gorabehera handiak ageri dira. Herri batzuk euskaldunak dira: Arbizu eta Ergoiena. Euskara eta erdara aditzen dira beste batzuetan: Urdiainen eta Etxarri Aranatzan. Euskara ahul samar dago beste zenbaitetan: Lakuntzan eta Bakaikun. Erdara da nagusi beste askotan: Ziordian, Olaztin, Altsasun, Uharte Arakilen, Irurtzunen...

Euskararen egiturari begiratzen badiogu ere, aldeak nabari dira herritik herrira. Hiztunen jarduna adituta, bertakoek erraz eta laster asmatzen dute nor den nongoa: nor arruazuarra, nor lakuntzarra, nor arbizuarra edo nor etxarriarra. Dena dela, bi euskalki edo hizkera nagusi bereiz daitezke eremu horretan: Burundakoa eta gainerako herrietakoa. •

• OINARRIZKO IRITZI BATZUK •

## ① Hizkuntzaren osagaiak

Batzuek uste dute euskara batua dela euskara guztia. Beste batzuek euskalkiak ere ikusten dituzte, eta horiek ere erabili behar direla pentsatzen eta esaten dute. Badira bi osagai horiek ikusten dituztenak, baina euskara ona, landu eta babestu beharrekoa, euskara batua dela sinesten dute. Euskalkiak hizkera baldartako dauzkate, eta ez dutela zaintzea eta lantzea merezi iruditzen zaie.

Gauzak, ordea, ez dira inondik inora horrela. Hasteko, hizkuntzaren barrua hori baino ugariagoa eta aberatsagoa da. Hona hemen zein diren hizkuntzaren osagaiak ohikoenak.

**a. Estandarra.** Hori da Euskal Herrian *euskara batua* deitzen duguna. Hizkera horren barruan bi maila egon ohi dira: *jaso*a eta *lagunartekoa*. Adibide batzuekin azaltzeko, hizkera jasoan *ihesi joan da, hainbat lagun, eguraldi bikaina, berebiziko jai*a gisako hitzak eta esapideak sartzen dira. Lagunarteko hizkeran, berriz, *ospa ein du, laun dexente, primerako egualdia, kriston jai*a gisakoak. Ikusten denez, hitz desberdinak erabiltzea (*hainbat / dexente*) eta hitzak laburtzea (*lagun / laun*) dira lagunarteko hizkeraren osagaietako batzuk.

**b. Dialektoak.** Horiek dira Euskal Herrian *euskalkiak*

edo *herri hizkerak* deitzen ditugunak. Horien barruan ere bi maila egon ohi dira: *jaso*a eta *lagunartekoa*. Hizkera jasoan *heldu dan domekan, ohetik garaiz jagitzen bagara, ehizera fanko gara* erabiliko da. Lagunarteko hizkeran, berriz, ohiko hitz laburtzeak eta beste aldaketa batzuk egiten dira: *heldu'an donbegan, ohiatik garaiz jagitzen бага, ehizia fanko ga*. Urdiaingo adibide horiek honela esaten dira euskara orokorrago batean: *datarren igandean, ohetik garaiz jaikitzen bagara, ehizara joango gara*.

**c. Lanbideetako hizkerak.** Horien barruan ere bi maila daude: *jaso*a edo *hizkera teknikoak* eta *lagunartekoa* edo *argotak*. Linguistika alorreko hizkera teknikoari dagokio ondorengo esaldia: *bi kontsonanteen arteko oposizioa neutralizatu egin da*. Hizkera arruntean honela esango genuke: *bi kontsonanteak berdinu egin dira*. Lagunarteko hizkeran esaten da beste hau: *Liteko klasia Filon eukiko dugu*. Hizkera arruntean: *Literaturako eskola Filologia Fakultatean edukiko dugu*.

**d. Gazte hizkera.** Hitz berriak sortzea eta betikoak laburtzea dira, gehienbat, hizkera honen ezaugarriak. Hona adibide bat: *udalak sartu dira*. Hizkera arruntean beste modu honetara esango genuke: *udaltzainak sartu dira*.

**e. Haur hizkera.** Umeak jaio ondorengo lehenbiziko hilabeteetan erabiltzen da. Hitz laburrak eta erraz esaten direnak erabiltzea eta silabak errepikatzea dira hizkera honen ezaugarri nagusiak. Esate baterako, *mama* 'ura', *papa* 'ogia', *pipi* 'txoria', *pupu* 'mina', *txitxi* 'haragia' gisakoak.

**f. Jolas hizkerak.** Euskal Herrian bada horrelako bat: *sasieuskara*, *ahuntz erdara* / *ahuntz hizkera*, *zapo erdara* / *zapo hizkera*, *buhame lenguajea*... hots egin zaio lekuen arabera. Hona hemen adibide bat: *zeper napai dupuzupu?* Euskara arruntean: *zer nahi duzu?*

Horiexek dira Euskal Herrian ezagutu ditugun hizkera motak eta, ikusten denez, zenbaitek uste duena baino nabarragoa da hizkuntzaren barrua.

Hizkera horietatik zein den txarra eta zein ona ez dago esaterik. Hizkuntza osasuntsu egongo bada, denak erabili, landu eta babestu behar dira. Gauza bakarra da kaltegarria: hizkera horien esparruak zuzen eta garbi ez bereiztea eta batari dagokion lekuan bestea erabiltzea.

EITBko albistegiei, esate baterako, euskara batua eta jasoak dagokie. Esparru horretan ez da, beraz, egokia *jende dexente eontzan manifi*an esatea. Arruntegia gertatuko litzateke edozeinen belarrirako. Egokiagoa da *yende asko egon zen manifestazioan*. Sakanako Beleixe Irratian, era berean, ez da zentzuzkoa *yende anitz elgarretaratu zen kale agerraldian* esatea. Alde batetik jasoegia eta, bestetik, sakandarrendako urrunegia litzateke hori. Egokiagoa da *jende asko elkartu zen manifestazioan*.

Azken batean, entzuleak edo irakurleak zein diren, lekua eta egoera zein den, eta darabilgun mintzagaia zein den, hizkera bat edo beste aukeratu beharko dugu; ezin dugu edozein hizkera edozein egoeratan baliatu. Beste era batera esateko, euskara batua eta euskalkiak, hizkera jasoak eta lagunartekoa, gazte hizkera, haur hizkera eta jolas hizkerak ez dira inondik inora antagonikoak, ez dira bata bestearen etsai; denak dira hizkuntzaren osagai. Gainera, denak dira onak, eta denak ezinbestekoak, hizkuntzak indartsu eta osasuntsu bizirik iraun dezan. •



## ② Euskara batua eta euskalkiak

Ez da oraindik urte asko euskara batua egin zela; 1964an hasi zuen ibilbidea. Zalaparta handia piztu zen agertu zenean, eta haustura bat gertatu zen euskal gizartean. Bizkaian sortu ziren istilurik larrienak; beste arrazoi batzuen artean, hango euskalkia zelako euskara batutik gehien aldentzen zena. Eztabaidaren beroak gauzak bere onetik ateratzea ekarri zuen; batzuk batuzale sutsu agertu ziren eta euskalkizale amorratu besteak. Azkenaldi honetan asko baretu da egoera, eta gero eta gehiago dira euskara batua eta euskalkiak hizkuntzaren zatitako hartzen dituztenak, eta gero eta gehiago dira hizkuntzak sendo iraunarazteko bi zatiak ezinbesteko jotzen dituztenak. Bataren eta bestearen esparruak ondo zehaztea da, beraz, egin beharreko hurrengo urratsa.

### 2.1. Euskara batuaren lekua

Alderdi guztietako euskaldunek batak besteari erraz eta eroso ulertzea da euskara batuaren helburu nagusia. Beraz, euskaldun guztiei begira ari garenean erabili behar genuke euskara batua: Euskal Herri osoko hedabideetan, ikasliburuetan,

ikerkuntzan, literatura mota batzuetan eta errepede eta leku publikoetan, esate baterako, museo, monumentu historiko, geltoki, jatetxe, ikastetxe, ospitale, zinema, teatro eta gisa horretako esparruetan.

### 2.2. Euskalkien lekua

Hizkuntzak toki jakin batean hartu ohi duen itxura eta egitura berezia erakusten dute euskalkiek. Beraz, toki horietako jardunetan erabiltzeko tresnak dira. Jakina, eremu horietatik kanpo ere erabil daitezke, betiere batak besteari ulertzeko oztopo gertatzen ez diren bitartean. Ahozko eta lagunarteko jardunak dira, gehienbat, euskalkien esparruak.

Askotan esan izan da dialektoak hizkuntza hondatzearen eta zabartzearen ondorio direla, baina uste hori ez da zuzena. Egokiagoa da esatea toki jakin bateko hiztunek hizkuntza beren beharrianetara moldatzearen ondorioa direla. Beraz, toki horietako jardunetan —ahozkoetan, gehienbat— bertako hizkerak erabiltzea da zentzuzkoena.

Gainera, dialektoek edo herri hizkerek badauzkate zenbait alderdi on:

- a. Leku baten *identitatea*, *nortasuna* adierazten dute. Hiztunarendako bere alderdiko hizkera da gertukoena eta kuttunena. Hizkuntza txikien kasuan gehienbat, hizkuntzak bizirik iraungo badu, ezinbestekoa da hiztunaren eta hizkuntzaren arteko lotura hori estua izatea. Azken batean, gehienbat horrexegatik iraun du euskarak berak bizirik; euskaldunondako geure nortasunaren adierazgarri nagusia izan delako. Beraz, hiztunari bere eskualdeko hizkera txarra, zakarra, baldarra eta baliorik gabea dela esaten eta sinetsarazten bazaio, ahuldu egingo da lotura eta ez die hizkuntza bere ondorengoei transmitituko.
- b. Transmisioa aipatu da, eta euskara batua egin zen garaian, 1960-75 tartean, neurrigabeko itxaropena jarri zen ikastolan eta telebistan. Euskara bi esparru horietan sartuz gero,

“salbatuta” egongo zela sinesten eta esaten zen. Denborak erakutsi du uste horren alderdi ustela: euskarak eskola eta telebista bereganatu ditu, baina ez da inondik inora salbatu. Orain konturatu gara beste esparru batzuk ere ezinbestekoak dituela: etxea eta lagunarteko jarduna. Eta jakina, herri euskaldunetan esparru horiek bertako euskararenak dira; ez euskara batuarenak.

- c. Azken urteotan egindako bideak beste gertakari bat ere ekarri du agerira: euskaldunok erdaretatik elikatzen garela, eta ez dugula ia ezer sortzen euskaratik bertatik abiatuta. Ez dugu landu, eta herdoiltzen utzi dugu, hizkuntza sortzeko gaitasuna. Euskaraz *sena* deitu ohi zaio sortzeko gaitasunari. Nagiak atera eta gaitasun hori bizkortu beharra aipatu da eta, jakina, herri euskaldunetan bertako hizkerei segida ematea da sena bizkortzeko irtenbiderik errazena, merkeena eta onuragarriena. •

## EGUN ON SAKANA



BELEIXE irratiko  
saioa •

### ③ Euskara jaso eta lagunartekoa

Euskaldunok ez ditugu ondo bereizten bi hizkera mota horiek. Hauxe izan daiteke horren arrazoia: euskara —euskalkia, zehatzago esateko— lagunarteko jardunetara mugatu da eta jardun jasoetan erdara baliatu da ia beti. Eliza da euskara jaso erabili den esparru bakarrenetakoa eta, horrexegatik, hizkera jaso “apaizen hizkerarekin” berdintzen du jende askok, eta hitz egiteko modu hori ez dute izaten oso gogoko. Garbi dago, ordea, euskara bizimoduko esparru guztietan erabili nahi badugu, hizkera jaso eta lagunartekoa biak direla ezinbestekoak. Gehienbat, bi esparru dira etorkizunean nahitaez landu beharrekoak: **a)** lagunarteko batua, eta **b)** euskalkietako hizkera jaso. Ikus dezagun polikiago zer den hizkera horietako bakoitza.

#### 3.1. Lagunarteko euskara batua

Euskara batua egiten hasi zenetik hona, jardun jasoetan baizik ez da baliatu: irakaskuntzan, liburuetan eta gisa horretako esparruetan. Aldiz, euskara batua ikasi ondoren lagunartean erabiltzeko moduak ez gaitu batere kezkatu. Gainera, konponbide faltsu bat eman

zaio auziari. ETBn, esate baterako, humore eta lagunarteko saioetan euskalkia baliatzen da; bizkaitarra eta, batez ere, giputza. Eta hauxe da galdera: zer egin behar du euskalkirik eduki ez eta euskara batua baizik ez dakienak? Hauxe izan ohi da tankera horretako hiztunen irtenbiderik ohikoena: erdarara jotzea. Hori, jakina, ez da bidea; euskara batuaren barruan lagunarteko hizkera lantzea eta garatzea da egiazko konponbidea. Hauexek dira horretarako oinarritzko ardatzak:

- a. Hitzak eta esapideak bereiztea. Hizkera jasoan *ihesi joan, alde egin*. Lagunarteko hizkeran *ospa egin, hanka egin*.
- b. Hitzak laburtzea eta bata bestearekin lotzea. Hizkera jasoan *egin zuen*. Lagunarteko hizkeran *eintzuen / eintzun*.
- c. Euskaltzaindiaren arauekin malguago jokatzeta. Esate baterako, Euskaltzaindiak /g/ ahoskera erabiltzeko aholkua eman du eta *energia, genero, logika* esatea hobetsi du. Sakanan, ordea, hobe ohiko [x] ahoskatzen jarraitzea horrelako hitzetan.



### 3.2. Euskalkietako hizkera jasoa

Euskalkia lagunarteko hizkerarekin berdintzen du gutariko askok. Uste da *in tut* dela euskalkia eta *egin ditut*, berriz, batua. Jakina, uste hori ez da zuzena. Biak dira euskalkia: bata lagunarteko hizkera da eta bestea jasoa.

Oso ezaguna da Sakana guztian arbizuarren ahotan jartzen den esapidea: *fan biduu o zee in biduu?* Dudarik gabe, hori lagunarteko hizkera

da. Honela izango litzateke hizkera jasoan: *fan bihar* (edo *biher*) *dugu* edo *zer egin bihar* (edo *biher*) *dugu?*

Euskalkietako hizkera jaso horixe da, esate baterako, Sakanako Beleixe Irratian erabil daitekeena. Baita ahozko hizkera baliatzen den beste esparru batzuetan ere: elizan, ikastetxeetako ikasgeletatik kanpoko hartu-emanetan, hitzaldietan... •



“

«'Euskalkia' eta 'lagunarteko euskalkia' bi gauza ezberdin direla argitu beharra dago»  
«Beste herri batzuetan bezala, hemen ere ezinbestekoak dira 'tokiko batuak' eta ezinbestekoa da, era berean, 'batu kolokiala' edo 'lagunarteko batua'. Tresna horiek ez izateak sortzen ditu arazoak eta lehentxoago edo gerotxoago konpondu beharra izango da»

[GAUR 8. (2018/02/10)] •

## ④ Euskaltzaindiaren arauak betetzeaz

Euskaltzaindiak hartu du bere gain euskararen batasuna bideratzeko ardura eta, horretan aurreratzeko asmoz, hainbat erabaki eta arau plazaratu ditu joan den aspaldian. Arau eta erabaki horiek gehiegizkoak iruditu zaizkio zenbaiti, baina menderik mende gizarteko esparru gehienetan baztertuta egon den hizkuntza normalizatu eta gainerako hizkuntzen mailan jarri nahi badugu, ezinbestekoa da arauak eta erabakiak hartzea. Beste gauza batzuk izan daitezke eztabaidagai. Esate baterako hauxe: ea arau eta erabaki horiek alderdi guztietako hitzun guztiek bete behar ote dituzten modu, egoera eta epe berberetan.

Galdera hori dela eta, gauza bat eduki behar dugu gogoan: Euskaltzaindiaren arau asko *euskara batu jasorako* egin direla. Gerta daiteke, beraz, Zuberoa, Bizkaia, Poznango Unibertsitatea, Idahoko ikastola eta Bartzelonako Euskal Etxea kontuan hartuta plazaratu diren arau horietako batzuk eskualde euskaldun jakin baterako erabat egokiak ez izatea. Eta gerta daiteke, era berean, unibertsitateko ikerlan baterako zentzuzkoa den araua, herri euskaldun bateko jaien kartel

baterako hain zentzuzkoa ez izatea.


Adibide batzuekin azalduko dut esan nahi dudana. Euskaltzaindiak *s*, *z*, *ts* eta *tz* zuzen ahoskatu beharraz mintzatu da. Erabaki zentzuzkoa da hizkuntzaren osotasunari begira, baina, hala ere, mendebalean ez zaio jaramonik egin. Alderdi hartan aspaldi berdindu ziren kontsonante horien ahoskerak eta *z* → *s* eta *ts* → *tz* egin ziren. Hori dela eta, alderdi hartan ez da Euskaltzaindiaren araua betetzeko ahaleginik egin. Ez da egon Euskaltzaindiaren aurkako matxinadarik, arau jakin hori betetzeko indar edo behar eza baizik.

Euskaltzaindiak, era berean, [j] ahoskatzea eta *yan*, *yo*, *yoan* esatea erabaki du. Hori ere guztiz arau zentzuzkoa da, baina erdiguneko hizkeretan ez zaio jaramonik egin. Alderdi horretan [x] ahoskatu da joan den aspaldi luzean (*jan*, *jo*, *joan*) eta hitzunak deseroso agertzen dira [j] esan behar dutenean. Horiek ere ez dute Euskaltzaindiaren aurkako matxinadarik egin, baina erakunde horrek proposatutako ahoskera arrotza eta artifiziala iruditu zaie beren eguneroko jardunerako.

Azken batean, hauxe da hiztunok argi eduki behar duguna: Euskaltzaindiaren arauak aintzakotzat hartu behar baditugu ere, ez direla leku eta egoera guztietan, berehala eta orpoz orpo jarraitu beharrekoak. Argi eduki behar dugu, gainera, hiztunen eguneroko hizkeratik urrutiegi gelditzen diren jokabideak jarraituta, hiztunek hizkuntza bertan behera uzteko arriskua dagoela. Eta arrisku hori ez da inondik inora ametsetakoa. Halaxe gertatu zen, esate baterako, XX. mendearen hasieran, *akeita*, *urruzikina*, *txadona* bezalako hitzekin euskara suspertzen ahalegindu

zirenean.

Gaur egun ere badaukagu arrisku hori. Euskaltzaindiak, esate baterako, *hartu-eman* eta *harreman* hitzen artean bigarrena hobetsi du, baina gogoan eduki behar dugu aukera hori euskara batu jasorako egin duela. Sakanan *hartu-eman* esan bada beti, ez da zentzuzkoa Sakanako ikastetxeetan, hedabideetan eta kaleko iragarki eta oharretan beti esan dena guztiz baztertzea eta sekula esan ez dena egun batetik bestera erabat nagusitzea. •



## ⑤ Beste aukera bat: Tokiko batua

Euskaltzaindiaren arauak hizkera jasorako eta nonahiko hiztunendako direla esan da eta, garbi dago, Nafarroako Gobernuaren izkribu bat eta Arbizuko udaletxearen beste bat ez direla nahitaez euskara bereborean zertan egon. Garbi dago Nafarroako Unibertsitateko irakasleek euren eskoletan darabilten hizkera eta Etxarri Aranazko haur hezkuntzako irakasleek darabiltena ez dutela erabat berberak zertan izan. Garbi dago Euskal Herri osoan eta Euskal Herritik kanpo zabaltzen den Berria egunkariko hizkerak eta Sakanako Guaixe aldizkariak ez dutela arras berdinak izan behar. Joan den aspaldian, euskara batua aurrera ateratzeko grinan, modu berean jokatu da leku eta esparru guztietan, baina garbi dago, leku eta esparru horien arabera, hizkera bat beste bat baino egokiagoa izan daitekeela.

Argi izan behar dugu ezin dela berdin jokatu herri erdaldun batean (Tutera) edo herri euskaldun batean (Arbizu). Ezin da berdin jokatu euskalki bat egiten den lekuan (Bizkaiko Arratia) eta desberdina egiten den beste batean (Nafarroako Sakana). Ezin da berdin jokatu esparru jaso batean (Nafarroako Gobernu) edo lagunarteko esparru batean (gaztetxea edo jubilatuen etxea). Leku eta esparru horietako batzuetan bertako euskalkia erabili ahalgo da

zenbaitetan eta, euskara batua erabiltzekotan ere, bertako hiztunen ohitura eta jokabideetara moldatzen ahalegindu behar genuke.

Azken batean, beraz, euskara batua hiztunen beharrianetara egokitzea komeni da, hiztun guztiek euskara batua onartu eta bereganatu dezaten eta berek ere gero lasai eta eroso erabil dezaten. Herri eta eskualde euskaldunetako administrazio zerbitzuetan, ikastetxeetan, euskaltegietan, hedabideetan, elizetan eta gainerako esparru eta zeregin guztietan euskara batu gertuagoko bat erabiltzen ahalegindu behar genuke.

Egia esan, hori ez da guztiz gauza berria: Lapurdin eta Nafarroa Beherean aspalditik ari dira horretan. Hango ikastola, gau-eskola eta irratietan bertako hizkeretara egokitu dute euskara batua. “Iparraldeko batua” deitu ohi da eta oso emaitza ona ekarri du: hiztunek erabat onartu dute eta eredu horixe baliatzen dute haietako askok. Beste hizkuntza batzuetan ere, jakina, ohikoak dira horrelako gertakariak. Espainiako telebistetako albistegietan erabiltzen den gaztelania eta, esate baterako, Mexikoko telebistetan erabiltzen dena ez dira inondik inora gauza bera.

Euskal Herrira itzuliz, “tokiko batu” horiek herri erdaldunetan ere lagungarri gerta daitezkeela iruditzen zait. Sakanako ikastetxe eta euskaltegietan inguruko hizkera bizia aintzakotzat

hartzen bada, ikasitako hizkera hori errazago eta erosoago erabili ahalko da kalean, eta lasterrago eta merkeago lortuko da “euskaldun berri” izatetik erabateko euskaldun izatera heltzea. •



“ Lapurdin eta Nafarroa Beherean aspalditik ari dira horretan. Hango ikastola, gau-eskola eta irratietan bertako hizkeretara egokitu dute euskara batua. “Iparraldeko batua” deitu ohi da eta oso emaitza ona ekarri du: hitzunek erabat onartu dute eta eredu horixe baliatzen dute haietako askok. •

## ⑥ Sakanako batua

Sakanan euskara batua erabiltzeko orduan kontuan eduki daitezkeen zenbait gertakari aipatuko ditut jarraian. Hizkuntzaren ohiko atalak bereiziko ditut: fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa.

### 6.1. Fonologia

Arlo honetan ez dago euskalkien araberako hainbesteko alderik; oso zabala da euskaldun guztien arteko batasuna. Hauxe da Sakanan berezi egiten dena.

- (1) Azentua eta intonazioa dira euskaldunok gehien zatitzen gaituena. Ondo legoke, beraz, batzuk eta besteak bateratzeko arauak ezarriko balira, baina eremu euskaldunetako jardunetan bertako azentu eta intonazio ohiturei jarraitzea da zentzuzkoa: Sakanan Sakanakoa.
  - (2) *e* bokala *a*, *e* eta *o* bokalekin biltzen denean, *e* → *i* egiten da Sakana osoan: *semea* → *semia* / *semie*. Era berean, *o* bokala *a*, *e* eta *o* bokalekin biltzen denean, *o* → *u* egiten da: *beroa* → *berua* / *berue*. Idatzian *e* eta *o* bere horretan gordetzea da batasunerako bidea, baina bestela joka daiteke ahozkoan. Gainera, bi bilakaera horiek Euskal Herri gehienez gertatzen dira eta ez dira batzuek besteei
- ulertzeko oztopoa.
- Sakanako erdigunean, bestalde, *i* bokala *a*, *e* eta *o* bokalekin biltzen denean, *-y-* hotsa sartzen da bien tartean: *mendia* → *mendiya* / *mendiye*. Horrek ere ez dauka lekurik idatzian, baina bestela joka daiteke ahozkoan. Gertakari hori ere Euskal Herriko eremu zabalean gauzatzen da eta ez dakar euskaldunen arteko hartu-emanaz zailtzeko eta eteteko arriskurik.
- (3) Euskal Herriko ekialde osoan bezala, Sakanan ere maiz egiten dira goranzko diptongoak: *etxea* → /e.txjá/, *basoa* → /ba.swá/. Ahozko jardunearan ohitura hori onartzea litzateke zentzuzkoena.
  - (4) [x] ahoskatzen da Sakana osoan: *jakin*; ez *yakin*. Hori ere ontzat eman liteke eskualde barruko jardunearan. Ahoskera horrek oso eremu zabala dauka Euskal Herrian eta sekula ere ez da izan euskaldunen arteko hartu-emanaz eragozteko arrazoia.
  - (5) *i* bokalaren ondoren, *l*, *n* eta *t* kontsonanteak gehienbat, “busti” egiten dira Euskal Herriko alderdi batzuetan, eta *ll*, *ñ* eta *tt* ahoskatzen dira: *mutila* → *mutilla*, *mina* → *miña*, *ditugu* → *dittugu*. Idazterakoan bustidura horiek ez

adieraztea erabaki da, baina ahozkoan hitzunen esku utzi da batera edo bestera jokatzeko aukera, hizkeren arabera. Sakanan bi aukerak daude: Burundan ez dira bustitzen, eta Sakanako gainerako hizkeretan indartsua da bustitzeko joera. Sakana barruan ere, beraz, hizkeren arabera aukera horiek aintzat hartzea da bidea.

- (6) Hitzak biltzen direnean, *l*, *n* eta *r* kontsonanteen ondoren *z* esaten da Sakanan; ez Euskal Herri gehieneko *tz*: *egin zuen* edo *han zegoen*; ez *egintzuen*, *hantzegoen*. Egoera zaharrari eutsi zaio Sakanan eta, orain arteko jarrera horren aurrean, begirunez jokatzeko da zentzuzkoena; ez eskolaren bidez *tz* ahoskera nahitaez sarraraztea.
- (7) ez partikula *z*- batekin hasten diren adizkiekin biltzen denean, *tz* ahoskatzen da Euskal Herri gehienean: *ez zekien* → *etzekien*. Ez, ordea, Sakanan; *ezakien* esaten da eskualde honetan. Gordetzaille agertzen zaigu berriro ere Sakana eta lehen esandakoa errepikatuko dut: ez dela komeni, eskolaren bidez, *tz* ahoskera kosta ahala kosta sarraraztea.

## 6.2. Izenaren morfologia

Arlo honetan gorabehera gehiago daude euskalkien arabera. Ugaritasun horren aurrean, zenbait aldiz erabaki zehatzak hartu dira batasunari begira: aukera batzuk onartu eta gainerakoak baztertu dira. Beste batzuetan, ordea, aukera bat baino gehiago onartu da, eta beste zenbaitetan ez da ezer esan. Gauza da

hiztunik gehienok ez garela erabaki horietaz zuzen jabetu eta, geure ezjakintasun hori dela eta, okerreko jokabideak hartu ohi ditugu askotan. Sakanari dagokionez, hauxe da hemengo batuan erabil daitekeena:

- (1) Destinatibo kasuan *-endako* esaten da Sakana osoan; ez *-entzat* edo *-entzako*: *Aitziberrendako*, esate baterako. Euskara batuan onartuta dago aukera hori eta bidezkoa da, beraz, Sakanan erabiltzea.
- (2) Prolatiboan, era berean, *-tako* erabiltzen da Sakana osoan; ez *-tzat*: *Aitziber laguntako daukagu*. Hori ere onartuta dago euskara batuan eta Sakanan bertakoari eustea da zentzuzkoa.
- (3) Izen bizidunen NON kasuan *-en baitan* esaten da Sakanan; ez *-engan*: *Aitziberren baitan konfiantza daukagu*. Aukera hori ere ontzat eman da euskara batuan eta ez dago, beraz, Sakanan erabiltzeko debekurik.
- (4) Adberbioak NOR kasu singularrean erabiltzen dira, gehienbat, Sakanan; ez mugagabeen, mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan bezala: *Aitziber geldi-geldia dabil* (ez *geldigeldi*). Horretaz ez dago ezer erabakita eta leku bakoitzean bertakoa erabil daiteke; Sakanakoa, beraz, Sakanakoe.
- (5) Aditz jakin batzuekin doazen aditz izenak ZERTAN edo ZERTARA kasuetan jarri ohi dira hizkeren arabera. Sakanan, esate baterako, *jatera eman* esan ohi da; ez *jaten eman*.

Horretaz ere ez da ezer erabaki eta bakoitzak bere hizkerako ohiturari jarrai diezaioke; Sakanakoari, jakina, Sakanakoek.

- (6) Gradu hurbileko artikulua gorde dira Sakanan: *gure lagunondako*. Euskara batuan ez dira debekatu eta eskolak eta gainerako eragileek ere ez dauzkate zertan baztertu.
- (7) *nerau* eta *neroni* sailletako izenordainak erabiltzen dira Sakanan; lehenbizikoak Burundan, eta besteak gainerako hizkeretan. Auzi horren gainean ez da euskara baturako erabakirik hartu. Biak erabil daitezke, beraz, Sakanako jardunean.
- (8) *baten bat* eta *bakarren bat* sailletako izenordainak erabiltzen dira Sakanan. Horiek ere ez dira baztertu euskara batuan eta eskubide osoz erabil daitezke Sakanako jardunean.
- (9) Erdaraz *-ón* eta *-ión* bukaerak dauzkaten hitzak euskara batuan *-oi* (*limoi*) eta *-ioi* (*kamioi*) egitea erabaki da. Erabaki hori inondik inora gaitzetsi gabe, Sakanan eta ia Nafarroa osoan aspalditik dagoen ohitura ere kontuan eduki behar genuke zenbait esparrutan: *-ona* (*limona*) eta *-iona* (*kamiona*) egin ohi da Nafarroako jardunean.

### 6.3. Aditzaren morfologia

Gorabehera handiak daude euskal aditzean eta ezinbestekoa gertatu da erabaki zehatzak

hartzea euskararen batasun bidean. Arlo honetan ere, dena dela, hiztunen aukeran utzi dira zenbait gauza. Hona hemen Sakanako batuan erabil daitekeena:

- (1) Geroaldiko *-go* morfema asko zabaldu da Sakanan joan den aspaldian: *egingo*. Bertako jatorrizkoa, ordea, *-en* izan da (*eginen*) eta bizirik dago oraindik alderdi batzuetako jardunean. Biekini begirunez jokatzea izan liteke konponbidea.
- (2) Partizipioan *-ta* eta *-rik* morfemak erabiltzen dira eta biei egin dakieke lekua bertako batuan: *jarrita* / *jarririk*. Honetaz ere, hain zuzen, ez da erabakirik hartu euskara batuan; biak utzi dira hiztunen aukeran.
- (3) *eduki* aditza nagusitu eta *edun* baztertu da Sakana osoan: *diru asko dauka* (ez *diru asko du*). Halaxe gertatu da Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, euskara gehien egiten den alderdian. Euskara batu orokorrean ondo dago *edun* baliatzea, baina Sakanako batuan *eduki*-ren nagusitasuna aintzakotzat hartzea dirudi zentzuzkoena.
- (4) Sakanan barrena *ari izan* orokorraz gainera, *ibili* eta *egon* ere maiz erabiltzen dira: *gitarra jotzen ikasten dabil*; *Iruñean dago ikasten*. Gainera, *ekarri*-ren adizkiak ere erabiltzen dira eguraldi gertakariekin: *kazkabarra dakar* 'kazkabarra ari du'. Aukera horiei guztioi egin dakieke lekua bertako batuan.



#### 6.4. Sintaxia

Arlo honetan ez da erabakirik hartu euskara baturako; dena onartu da, baldin eta, jakina, “euskara” bada. Hau da, erdararen eraginez azkenaldian sartzen ari diren egiturak, *noa etxera* edo *dago Aitziber?* gisakoak dira mugatu beharrekoak. Dena dela, arlo horretan ez dago euskalkien araberako gauza berezi askorik. Sakanan bi egitura nabarmendu daitezke:

- (1) Kausazko *'nolabait + aditza + -en'*: *nolabait andregaiia Iruñekoa daukan, bertan erosi dute etxea.*
- (2) Baldintzako *-t(z)ez*: *ez joateaz, hots egingo dizut 'ez banoa, hots egingo dizut'.*

#### 6.5. Lexikoa eta esapideak

Sail honetan ere erabaki bakarra hartu da euskara batuari begira: Euskal Herrian erabiltzen


diren erdara bien eragin indartsuari muga jartzea, eta Euskal Herri osokoak diren euskarazko hitzak babestea eta ez baztertzea. Bestela, euskarazko hitz eta esapide guztiak onartzen dira. Zehatzago esateko, hauxe da lexikoaren gainean Euskaltzaindiak aipatu duena (Euskera 1968: 212):

Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago.

Jakina, Sakanako *momoxarroak* 'inauteriak' eta *kunkuna* 'apoa', bertan edo han inguruan baizik erabiltzen ez direnez, ez dira egokiak euskara batu orokorrerako. Ezta Burundako *zinzirrinak* 'belarritakoak' eta *mutxikan* 'jolasean' ere. Baina, dudarik gabe, hitz horiek guztiok daukate lekua Sakanako batuan. •



Momoxarroa •



Kunkuna •

• Oharra •

Txosten honetan agertu diren iritziak beste zenbait lagunekin izan ditut eztabaidagai.

Jose Mari Arakamari, Irantzu Epelderi, Mikel Galartzari, Elbira Lizeagari eta Txipi Ormaetxeari erakutsi nahi diet neure esker ona, egin dizkidaten ohar guztiengatik eta eman didaten laguntza eskuzabalagatik.

Koldo Zuazo

Euskal Herrian, 2009ko azaroan.

